


DB

Behar Hitzza
Leioa



Behargintza Leioa

MUGIMENDUZ BETERIKO OTSAILA

Ikusi duzunez, pasa den otsailaren 2an itxi genuen Mari Pepa eta Arloteren kanpaina, eta Leioako Caritasi jasotako dirua eman genion. Onartu behar dugu leioaztarrak buru belarri sartu direla kanpainan eta merkatariek lan izugarria egin dutela, hainbat eta hainbat kikara salduta herritarren eskaera itzelaren aurrean. Caritasen izenean, MILA ESKER.

Otsailaren 2an bertan, HAZILAN programa aurkeztu zen prentsaurrekoan. Egitasmo hori EAEko agentzien lankidetzan datza, goi mailako prestakuntza edo lanbide heziketa duten 20-25 urteko gazteen enplegarritasuna hobetzen laguntzeko helburuz. Proiektua GARAPENek zuzentzen du eta asmoa da pertsona horiek enpresa merkatuan sartzea. Horrela, enpresek prestakuntza berezia eta batez ere, motibazio handia duten gazteak aurkitzeko aukera izango dute.

Ondoren, otsailaren 10ean, Ibaiondo plazan kokatuta dagoen Enpresen Mintegiko leku libreak betetzeko deialdi berria argitaratu genuen. Mintegiaren bitartez, ekintzailatza bultzatu eta udalerriko aberastasun ekonomikoa bultzatu nahi ditugu. Ezin da ahaztu ezta ere, enpresek elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko esparrua dela mintegia.

Egun berean, Zaintza Teknologiko eta Lehiakorreko programaren azken taldeko saioa izan genuen. 2015eko azaroan hasitako programa horri esker, Leioako enpresek beraien informazio interesak bideratu eta automatizatu dituzte, denbora eta baliabideak hobeto erabiltzeko asmoz. Tutoretzak martxoan bukatuko ditugu.

Otsailaren 15 eta 16an, taldeko hitzaldiak izan ditugu, HAZILAN programa gazteei aurkezteko. Oso saio aberasgarriak izan dira denontzat, non gazteen kualifikazio maia altua ikusi dugun krisi egoera honetan. Espero dugu honelako programek egoera hori zuzentzeko balio izatea.

Beste alde batetik, merkataritza arloko programetan lanean jarraitzen dugu: Leioa Bidean eta Leioa Berpiztu. Gogoratzeko dizuegu, lehenengoarekin erosketak etxera hurbildu nahi genituela eta horrez gain, nahi duten merkatariei aukera eman zaiela merkataritza elektronikoko orriak eduki ditzaten. Bere aldetik, Leioa Berpiztu programak, kaleak biziberritu nahi ditu eta itxita dauden lonjak berpiztu. Interesatuta dauden 15 jaberekin batzartu gara haien lokalak alokatzen laguntzeko.

Aktibitatez beteriko hilabetea, ezta? Ea martxoa bide beretik doan.

Behargintza Leioa Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Mendibil kalea, 3 . 48940 - Leioa
Tfnoa.: 94 400 41 95 | Faxe: 94 402 25 41
www.behargintzaleioa.net
behargintza@leioa.net

 @LeioaBG  Leioako Behargintza

SAILAK:

Orientazioa
behargintza.orientazioa@leioa.net

Prestakuntza
behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa
behargintza.enpresa@leioa.net

Ekintzailatza
behargintza.ekintzaile@leioa.net

Lonjak berritzea



Duela gutxi, Leioako udal aldizkariko azalean agertu gara [LEIOA BERPIZTU](#) proiektuarekin. Proiektu horren helburua da merkataritza dinamizatzea: hutsik dauden lokalak berritzea estetika hobetzeko eta ekimen ekintzaile berriak sustatzeko. Gure kaleak husten badira, askoz ere zailago izango da tokiko merkataritza bultzatzeko formulak aurkitzea. Horrexegatik, LEIOA BERPIZTU programarekin, herritarrek eta merkatariek antzemandako interesei erantzun nahi zaie.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, higiezinaren merkatua egoera konplikatu egonik, jabeek aukerak bilatzen dituzte lonjak alokatzeko edo/eta saltzeko. LANBIDE – Euskal enplegu zerbitzuari esker, pertsona kualifikatuak dauzkagunez lonja horiek hobetzeko obrak egin ahal izateko, lokalen estetika hobetu ahal da ekimen ekintzaileak erakartzeko eta establezimendu berriak irekitzeko. Betiere, diseinatzaile baten laguntzarekin, Nataliarekin. Aldizkari honen azken partean ezagutu dezakezue.

Beste alde batetik, Leioako merkatariek askotan eskatu dituzte aukera berriak beraien negozioak ezagutzera emateko. 2013an egindako MBPBan (PERCO) agertzen zen leioaztarrek ez zituztela ezagutzen haien ondoan zeuden dendak. Horrexegatik, lokal berrituak alokatu edo erosteko interesik duten pertsonak aurkitu arte, beren produktuak beste leku batzuetan erakutsi ahal izatea formula egokia izan daiteke bezero berriak erakartzeko.

Horrela, merkatariek beste establezimendu batzuetan erakutsiko lituzkete produktuak, bertan zuzenean saltzeko aukerarik gabe. Erakusleihoak izango lirateke bakarrik, leioaztarrek tokiko merkataritzaren aniztasuna ezagutu ahal izateko.

Udalerriko lonjen mapa egin eta gero, jabeak identifikatzen ari gara eurei programa aurkeztu ahal izateko. Dena den, zuk gaur egun, hutsik dagoen lokal bat badaukazu eta interesik baduzu, programa aurkeztu nahiko genizuke. Deitu Behargintza Leioara eta atsegin handiz azalduko dizugu: behargintza@leioa.net edo 94.400.41.95

LEIOAKO ENPRESA

MINTEGIRAKO DEIALDI BERRIA



Leioako Behargintzako ekintzailletza arloak udalerriko sustapen ekonomikoaren alde lan egiten du enpresa berriak martxan jartzeko laguntza emanez, ikuspegi berritzaileak sustatuz.

Proiektu berriek aintzat hartu beharreko faktore-gakoetariko bat da enpresaren kokapena, batez ere lehen urteetan. Hori dela-eta, Leioako Behargintzako enpresen udal mintegian (Ibaiondo plaza 1) egoteko aukera eskaintzen die espazio beharrianak lokalen eskaintzarekin bat datozen proiektuei.

Mintegiaren helburua da enpresa berriei laguntzea kokapena emanez, eta existitzen direnei, zabaltzeko aukera eskainiz. Horrela, udalerrian, enplegua eta aberastasuna sor daiteke.

Mintegia aldi baterako pentsatuta dago, enpresei euren lehenengo urteetan laguntzeko helburua baitauka, merkatuan arrakasta izateko aukera gehiago izan dezaten. Horregatik ireki da berriro moduluetara sartzeko deialdia, ekintzaileen eskaerari erantzuten saiatuz.

Mintegiaren oinarri berriak otsailaren 10ean argitaratu dira. Eskabideak aurkezteko epea, martxoaren 10ra arte irekita egongo dena. Balorazioa, aurkeztutako proiektuen ikuspegi berritzailean oinarrituko da; hala ere, beste faktore batzuk ere aintzat hartuko dira, oinarri arautzaileetan azaltzen den bezala, web gunean kontsultatzeko ikusgai daudenak: www.behargintzaleioa.net

Prestakuntza

AKTIBATU:

GAITASUN PROFESIONALEI BURUZKO COACHING-a

Hil honetan, [HAZILAN proiektuaren](http://hazilan.eus) (hazilan.eus), **AKTIBATU** faseri ekingo diogu, gaitasun profesionalei buruzko coaching programa trinkoa, parte hartzen duten gazteek, lan munduan eta inguruko enpresetan, eskatzen diren zeharkako gaitasunak gara ditzaten.

Egitasmo hau, gaur egun, langabezia dauden 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuak laneratzeko pentsatuta dago.

Zertan da coaching-a?

Garapen pertsonal eta erakundeen garapenean ibilbide luzea duten bi coach profesionalen laguntzarekin, eta ikuspegi praktikoa erabiliz, ezagutza, emozio eta gorputzarekin zerikusia duten aspektuak landuko ditugu. Hausnarketa estrategiko baten antzeko prozesuari jarraituko diogu, honako hiru esparru hauetan zentratuta batez ere:



1. Garapen pertsonala: "ni pertsona".

- Nork bere burua definitu eta begirada estrategikoa.
- Nire lidergoa aktibatu.
- Nire indarrarekin konektatu etorkizuna eraikitzeko.

2. Gaitasun pertsonalak garatzea: "ni profesionala"

- Komunikazio eraginkorra.
- Taldeko lana.
- Adimen emozionala.
- Jendaurrean hitz egitea: nola egin aurkezpen eraginkorrak.
- Gatazka kudeatu.

3. Automarketin eta posizionamendua: "ni lan merkatuan".

- Ni profesionala; nor naiz eta zer eskaini dezaket?.
- Nire lekua aurkitu lan merkatuan.

Metodologia praktiko eta berritzaile hau behar bezala kontrastatuta dago gure lurraldeko beste agentzia batzuetan, eta emaitzek animatu egin gaituzte aukera hau baliatzera, eta horrela, aldaketa prozesuak eta erabaki profesionalak eraginkorrago burutzen laguntzen duten zeharkako gaitasunak landu. personas participantes gestionen con mayor eficacia los procesos de cambio y la toma de decisiones profesionales.

Aholkularitza - Orientazioa

Zure okupazio maila hobetzeko aholkuak emango dizkizugu, banaka zein taldeka. Zure helburu profesionala zehazten eta enplegurako gaitasunak ikusarazten lagunduko dizugu.

- Enplegua bilatzeko baliagarria den informazioa emango dizugu (prestakuntza-eskaintza, enplegu-eskaintzak, enpleguko web atariak, enpresetako datu-baseak, lanbideak, joerak eta aukerak...)
- Enplegua bilatzeko tresnak emango dizkizugu (curriculum vitae. Hautaketa-prozesua: elkarrizketa, talde-dinamikak eta proba psikoteknikoak, norberaren hautagaitza, sare profesionalak, enplegua bilatzeko agenda...)
- Zure gaitasunak indartzen lagunduko dizugu: jakin zein diren zeure interes profesionalak, ezagutu enplegurako gako-gaitasunak, zer eskatzen dizute enpresek, enplegu aukerak harrapatzeko bide eta iturriak...

Aurreikusitako tailerrak

- Tailerra: "Autoestimua eta enplegu bilaketa"
- Enplegu bilaketarako tailerra: Curriculum + aurkezpen gutuna
- Test psikoteknikoak – nortasuna
- Komunikazio gaitasuneko tailerra



Agenda

Martxoa:

Bizkaiko Foru Aldundiko Nazioartekotze eta Berrikuntza

laguntza programen aurkezpena

Lekua: Mendibile Jauregia. Leioa

Eguna: 2016/03/08

Whatsapp marketing

Lekua: Gazteiz

Eguna: 2016/03/15





Dirulaguntzak

Bizkaiko Foru Aldundiaren 13/2016 FORU DEKRETUA, otsailaren 9koa, diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Diru-laguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, merkataritza sozietateei, kooperatiba sozietateei, banakako enpresaburuei, profesionaleri eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2016ko ekitaldian euskarazko aldizkariak argitaratzen badituzte. [Buletinerako Sarbidea](#)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 14/2016 FORU DEKRETUA, otsailaren 9koa. Honen bidez, Nazioartekotzeari buruzko Programa arautzen duten oinarriak eta lehenengo deialdia onartzen dira, 2016. urterako. [Buletinerako Sarbidea](#)



Natalia

Bere burutik eta eskuetatik sortzen ari dira ondoren birmoldatuko diren lonja hutsetan eratzen diren diseinuak.

Azalduko diguzu zertan diharduzu hilabete hauetan? Zein egitasmo burutzen ari zara?

Udal lokalen eta lonja huts pribatuen kanpoko itxura aldatzen ari gara, bizia ematen diegu maila estetikoko esku-hartzeen bidez.

La Avanzadako udal lokaletan hasi gara, Mendibilen, bistako adreilueta graffitiak zituzten lokaletan egiten ari garen berriztatzeak Leioaren aurkezpen-txartela izan nahi du, herriko eraikin esanguratsuak moldatuz.

Dekorazioaren zure ikuspegitik, zure ustez nola eragiten du ekonomia sustapenean udalerrietan lonja itxiak edukitzeak?

Ez da soilik eragina dutela, gogo-aldateak ere bultzatu egiten dituzte. Lonja itxiak ez dute etekin ekonomikorik sortzen, eta ez diote herriari bizirik ematen, zirrara ezkorak transmititzen dituzte, tristura eta abandonua, eta biztanleek hori antzematen dute. Ez da bakarrik erakargarriak ez direla, kontua da ez direla eskaintza bizi bat.

Marketin sensorialaz eta bezeroaren esperientziaz hitz egiten den mundu batean, gehiago saltzeko tresna gisa, nola ez du eragingo lonja itxiak eta abandonatuak egoteak? Merkatu aktibo eta handituz doanaren antitesia dira.

Zure ustez, hau bezalako egitasmoek zein abantaila dute higiezinaren parkerako?

Alde batetik, egitasmo mota honek lokalaren jabea beste lokal aktiboetan presente dauden eta ikusgarri izan nahi duten enpresari txikiekin eta autonomoekin konektatzen du. Honekin lokal hutsten egoera hobetzea lortzen da, haiei balioa emanez eta beren potentziala agertuz, eta horrela jabeak alokairua edo salmenta lor dezaten errazten da.

Eta zure ustez, zein aukera izan ditzake beste gune batzuetan kokatutako saltokietarako?

Beste alde batetik, beste gune batzuetan dauden saltokiek presente egoteko aukera daukate, publizitatea egin eta jakitera emateko beraientzat ohikoak ez diren guneetan, bezeroak izan litezkeen kopurua handituz.



Sinergia argiak lortzen dira, herriaren itxura orokorra hobetu egiten da eta herritarrak kalera irtetera eta herriak zer eskaintzen dien ikustera animatzen dira.

Zure ustez, konexio estetiko bat egon beharko luke saltoki baten kokapenaren aukeraren eta inguruan dauden establezimenduen artean?

Ez dut uste konexio estetiko bat beharrezkoa denik elkarren ondoan dauden lokalen artean; nik aniztasunaren aldeko apustua egiten dut, eta berezko nortasuna, aztertua eta zaindua mantentzearen aldekoa, baina, propioa, gainerako lokalak nolakoak diren albo batera utzita; merkatuaren beharrak eta dagoen eskaera lehenetsi behar direla uste dut, ezin daiteke "ez entzun" jendeak behar duena, beharrezkoa da jakitea zein den ingurunean eskaera duen jarduera eta hori asetzea, baina gehiegi bete gabe.

Leioa Berpiztu programan integratu zinen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren programa baten bidez. Nola uste duzu eragingo duela denbora honek zure enplegagarritasunean? Zer uste duzu eman ahal dizula denbora honek?

Gutxienez, esperientzia atsegingarria da, Leioa "gaztetzeko" laguntzeko nire ilusioa eta lana emateko aukera daukadalako. Ondoren gertatuko dena... ez dakigu, baina espero dut positiboa izatea.

